



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Iceland Dance Companyk mundu industrializatuari buruzko erritual zirrargarri eta erritmikoa den *Black Marrow* ikuskizuna eskainiko du

- Erna Ómarsdóttir koreografo islandiarraren eta Damien Jalet koreografo frantziar-belgikarraren pieza ikusgarriak hasieratik sortzen du zirrara.
- Erna Ómarsdóttir mundu mailan aintzatespen handia duen koreografoa da, goi mailako artistekin aritutakoa, Björkekin edo Jan Fabrekin, besteak beste.
- Ikus-entzuleek ostiralean, otsailaren 16an eta larunbatean, 17an, gozatu ahal izango dute ikuskizunaz Arriaga Antzokian, 20:00etan hasiko diren emanaldietan.

Bilbon, 2018ko otsailaren 12an.- Bilboko dantza zaleak gogoratuko dira, agian, **Erna Ómarsdóttir** koreografo islandiarrak, bere kategoriaren erakustaldi txikia eskaini baitzuen Guggenheim museoaren zabalgunearen ondoan duela 10 urte baino zertxobait gehiago. Asteburu honetan, ostiralean, otsailaren 16an eta larunbatean, 17an, Arriaga Antzokiak bere herrialdeko dantza konpainia hoberena den **Iceland Dance Company** dakar Bilbora, agertoki gainean sortzailearen lan ikusgarria erakusteko. Izan ere, mundu mailako koreografo handienetakoa da, hainbat artistarekin aritutakoa, **Björkekin** edo **Jan Fabrekin**, besteak beste. **Ómarsdóttirrek Damien Jalet** koreografo frantziar-belgikarrekin batera sortutako lana da **Black Marrow**.

Black Marrow, jatorrizko mugimenduz betetako pieza da, eszenan jartze ederra du, **Ben Frost**en musika bikain eta irakargarriarekin (Jatorrizko Musika Hoberenaren Saria lortu zuen 2015eko Islandiako Arte Eszenikoen Sarietan) eta dantzarien lana ikusgarria da, indarrak agortu arte dantza erritmikoan aritu beharrak duen gorengo exigentzia mailari erantzunez. Elkarrekin mugitzen dira, okertu, eta fosilen, makinen edo jainko paganoen itxura har dezakete, instintuak industrializatu egin diren mundua erretratatzeko duen dantza konposizioari forma emateko.

Ikuskizunak, klimaren aldaketarekin, hondamendi ekologikoekin edo gaur egungo bizitzeko modu hedonistarekin elkarketak gogorarazteko gai diren irudi bereziak ditu, baina beti ere edertasun maila handiko ikuspegi poetikotik, emaitza gisa oso ikuskizun bisuala eta indartsua lortzeko. *Black Marrow* ispilu deformatu gisa aritzen da, planetarekin dugun erlazio garaikidearen itzala egiten duen isla gisa.

Sinopsia

Jainkoaren baltsamoa ala deabruaren gorozkia? Zer da gure mundu industrializatuaren zainetan pentsamendua ponpatzen duen odol beltz hori? Zein mitologia bizi da bertan? Zenbat metamorfoseatuko gaitu, ezinbestean, gu eta gure ingurunearekin dugun

erlazioa? Zenbateko mendekotasuna daukagu? Noraino joan beharko dugu gure beharrak asebetetzeko? Etorkizuneko olioak al gara?

Erna Ómarsdóttir eta Damien Jalet galdera horiekin hasi ziren *Black Marrow*-en lehen bertsioa hasi zutenean Australian 2009an. Orduetik pieza garatu egin dute, Iceland Dance Companyko dantzariekin, dantza errituala bilakatu arte.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 12 eta 40 euro artean
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Black Marrow

Koreografia: **Erna Ómarsdóttir eta Damien Jalet**

Koreografia laguntzailea: **Sara Black**

Jatorrizko musika: **Ben Frost**

Beste musika: **Danzel**

Argiztapena: **Björn Bergsteinn Guðmundsson**

Jantziak: **Júlianna Steingrimsdóttir**

Espazio eszenikoa: **Alexandra Mein, Erna Ómarsdóttir, Damien Jalet, Júlianna Steingrimsdóttir eta Rebekka Moran**

Mozorroak: **Rebekka Moran eta Heimir Sverrisson (Alexandra Meinen jatorrizko mozerroetan oinarritutakoak)**

Dantzariak:

Cameron Corbett, Einar Nikkerud, Elín Signý Weywadt Ragnarsdóttir, Halla Þórðardóttir, Hjördís Lilja Örnólfssdóttir, Inga Maren Rúnarsdóttir, Sergio Parés Agea eta Þyri Huld Árnadóttir

Informazio gehiago:

Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus